



◦ DEABRUAREN ABOKATUA ◦

“Kanpin dendako klabijak baino ez gara eurentzat”

Hasier Etxeberria | Telebistako “hamalautxo”

Cosme Iturrinoren definizioan, “ehun kilotik gorako morroskoa”, “kanpolarrosa”, “amerikano itxura tristea” duen morroia. Eskerrak Etxeberriak berak sortutako pertsonaia den.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Hasier Etxeberria, zein liburu ekarri diguzu gaur?

Barkatu, baina eskuak poltsikoetan ditudalator. Ez nuen uste halako leku eroan hain galdera arrunta egin behar zidatenik.

Egia da, baina *Sautrela* etorri zait gogora. Hamar urte, 250 programatik gora. Ez nekien gure literaturak hainbesterako ematen zuenik.

Neuk ere ez. Zorionez, txikitatik izan naiz irudimen handikoa: gauzak asmatzea ez zait egiten hain zaila.

Sautrela-n inoiz ikusi dudana elkarrizketarik onena, *Pantxikaneko menuba* idatzi zuenari egindakoa.

Nola zen Picabiaren hura: inork segi zaitzan nahi baduzu, aurretik joan behar duzu. Norbait zeu imitatzen hasten denean, ematen du edozein herri eta hizkuntzaren parekoak garela, normalak, alegia. Zoritxarrez hori ez da horrela: *Wazemank*-eko txorimaloen inspirazio-gai izateak ez gaitu erdipurdiko izatetik libratuko.

Zu zeu ere idazlea zaitugu, *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan* liburuagatik ezaguna.

Eulien bazka edo *Inesaren balada* eleberriengatik ezagunagoa nintzela uste nuen, baina tira. Zerua eta infernua ezagutu ditut liburu horrekin. Gurean oso intereseko egin zitzaion jendeari, baina gaztelaniazko argitalpena ez zuen ia inork irakurri. Kanpin dendako klabijak baino ez gara eurentzat, tingladu osoari eus-

ten diogun arren, bakarrik lurrean ondo ezkutu, trabarik egiten ez badugu gara balios. Bestenaz, soberan gaude.

Iturrino Handiaren hitzak dira sarrerakoak. Nola uzten diezu zure pertsonaiei zutaz horrelakoak esaten?

Idatzi ditudan eleberrietako biztanleek ondo ezagutzen nautela uste dute, eta ausartu egiten zaizkit zernahi esatera, ez diedalakoan sekula ukabildarrik emango kokotsean, edo laban-kada gibelean. Euren lekuan nik ez nuke lasai lo egingo: nire esku dago zoriona duten ukituko ala pipiak dizkien begiak irentsiko.

Kazetari, idazle, sukaldarien lagun ere bai. Azken hori zer da, otorduak doan izateko?

Azkarra zara, gero, Watson.

Ziazerbak kreman mahaspasa eta pinaziekin eskatu dizkiot amari iganderako, eta lapikoarekin jo nahi izan nau buruan.

Ez naiz harritzen. Ez dakizu makarroiak tomatearekin eskatzen, mundu guztiak bezala? Bide batez, emango al zenidake zure amaren telefono zenbakia? Emakume zentzuduna dirudi.

Zutabegintzan ere aritu zara, luze. *El Mundo*-n idaztearena, ordea, berriz esplikatuko didazu, mesedez?

Gazteegia zara hori ulertzeko: Ni *El Mundo*-n hasi nintzenean idazten, *El Mundo El Mundo* zen: Ramon Zallo, Javier Ortiz, Mariano Ferrer... O tempora, o mores! ■